




BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



GERNIKAKO ARBOLAREN OINORDEKO BAT HAZTEN ARI DA DABORDUKO ARABAKO HARANAN

- **Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria, Ramiro González Vicente, Arabako Diputatu Nagusia, Pedro Elósegui González de Gamarra, Arabako Batzar Nagusietako lehendakaria, Rosa Maria Ibarondo Manzanos, herriko alkatea, eta Pedro San Vicente Corres, Santa Teodosia kofradiako presidentea, izan dira Santa Teodosia baseleizako landaketa-ekitaldian.**

(Haranan, 2022ko urtarrilaren 13an). Gaurtik aurrera Gernikako Arbolaren oinordeko bat dago Haranako lurretan, euskal eskubide historikoen, askatasunen, bakearen eta demokraziaren ikur unibersalena. Haretx sagradu zaharraren oinordeko bat landatu dabe gaur goizean Arabako udalerrri horretako Santa Teodosia baseleizearen ondoan, eta bertan izan dira Ana Otadui Biteri, Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria, Ramiro González Vicente, Arabako Diputatu Nagusia, Pedro Elósegui González de Gamarra, Arabako Batzar Nagusietako lehendakaria, Rosa María Ibarondo Manzanos, herriko alkatea, eta Pedro San Vicente Corres, Santa Teodosia kofradiako presidentea.


Gaur landatutako 14 urteko haretx gaztea gaur egun Arabako Lurralde Historikoan bizi diran dozena bat zugatzi batu jake. Mundu osoan sustraiak bota dituen 400 zugatz baino gehiago dagoz, Bizkaiko Batzar Nagusietako erregistro eguneratuak jasoten dauenez. Bizkaiko Parlamentuko Lehendakaria pozik agertu da gaurtik aurrera Gernikako Arbolaren mendeetako leinuak printzipio eta balio demokratikoen eragina zabaldu dauelako Nafarroagaz mugea egiten dauen Arabako geografiaren puntu horretan. Leku garaia, edertasun berezikoa, pago, arte, haretx eta lizarrez inguratuta.

Zugatza Santa Teodosia baseleizan landatu da, Haranako Udalak eta Santa Teodosia Kofradiak eskatuta. Gune estrategikoa izan da, historian zehar, bidekurutzeta eta inguruko biztanleentzako erromesaldi-lekua. Ebroko lurren, itsasoaren eta Nafarroako Erresumagaz eta Frantziagaz daukan lotunearen arteko kokapena dala eta, XIV. mendeko tenplu txikia ibiltari eta erromesen babesleku izan da mendeetan zehar.

Batzar Nagusietako Lehendakariak, Haraneko alkateari bertan landatutako haretxa Gernikako Arbolaren ondorengoa dala egiaztetan dauen benetakotasun ziurtagiria emon aurretik, oinordekoak *"sustrai sendoak botatea eta neguak gogorrak izan arren sendo eustea"* gura dauela adierazo dau. *"Zuen eskaeran deskribidu zenduen moduan,*



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



umeen jolasen, gaztaroko maitasunen, erromeria-egunen eta guztion artean eregi behar dogun etorkizunaren lekuko izan daitela.”


Landaketa-ekitaldia gertaera berezia izan da udalerrarentzat eta Harana banatuta dagon lau kontzejuentzat. Haretzak komunitadeko hainbat ordezkariaren arretea bereganatu dau gaur. Alkateaz, udalbatzaz eta kofradiako kideez gain, Arabako udalerriko hainbat elkartetako kideak, Mendialdea ikastolako ikasleak, Aranako Abesbatza (*Txori-Txori* eta *Agur Jauna* abestu ditu), Administrazio Batzarrak eta herriko bizilagunak izan dira ekitaldian. Horrez gain, lurralde historikoko beste persona garrantzitsu batzuk be egon dira ekitaldian, horreen artean Estefania Beltran de Heredia Arabako senataria, Eduardo Aguinaco Nekazaritzako foru diputatua eta Jon Urresti Vital Fundazinoko presidentea.

Zugatzaren ondoan plaka bat jarri da, kimu bakotxari urteetan lagundu ohi deutzan inskripzioagaz (euskeraz, gaztelaniaz eta ingelesez):

*“Gernikako Haretxaren leinukoa.
Euskal Herriaren askatasunen
eta bake gogoaren ikurra.
1937an, herritar zibilen aurka munduan
berariaz egindako lehen bonbardaketa
jasan eban Gernikak. Pablo Picassok horren
gomutaz egin eban “Guernica” artelana.”*



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



UN RETOÑO DEL ÁRBOL DE GERNIKA CRECE YA EN LA LOCALIDAD ALAVESA DE VALLE DE ARANA

- **Al acto de plantación en la popular ermita de Santa Teodosia, ha acudido la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui Biteri, el diputado general de Araba, Ramiro González Vicente, el presidente de las Juntas Generales de Araba, Pedro Elósegui González de Gamarra, la alcaldesa de la localidad, Rosa María Ibarondo Manzanos, y el presidente de la cofradía de Santa Teodosia, Pedro San Vicente Corres.**

(Valle de Arana, a 13 de enero de 2022). Las tierras de Valle de Arana abrigan desde hoy un descendiente del Árbol de Gernika, el símbolo vasco más universal de los derechos históricos, las libertades, la paz y la democracia en Euskadi. Un retoño del viejo roble sagrado se ha plantado esta mañana junto a la ermita de Santa Teodosia de este municipio alavés, en un acto al que ha acudido la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui Biteri, el diputado general de Araba, Ramiro González Vicente, el presidente de las Juntas Generales de Araba, Pedro Elósegui González de Gamarra, la alcaldesa de la localidad, Rosa María Ibarondo Manzanos, y el presidente de la cofradía de Santa Teodosia, Pedro San Vicente Corres.


El joven roble de 14 años plantado hoy se suma a la docena de árboles que actualmente viven en el Territorio Histórico de Araba, entre los más de 400 ejemplares que han echado raíces por medio mundo, según recoge el registro actualizado de la Cámara foral vizcaína. La Presidenta del Parlamento de Bizkaia se ha alegrado de que, desde hoy, la estirpe centenaria del Árbol de Gernika extienda sus influjos de principios y valores democráticos por este punto de la geografía alavesa que colinda con Navarra. Un lugar elevado, de belleza singular, que está rodeado de hayedos, encinas, robles y fresnos.

El árbol se ha plantado junto a la ermita de Santa Teodosia bajo petición del ayuntamiento de Valle de Arana y de la Cofradía de Santa Teodosia, en un punto estratégico que históricamente ha sido cruce de caminos y lugar de visita obligada para los habitantes de los alrededores. Debido a su localización, el pequeño templo, cuyo origen se remonta al siglo XIV, ha sido durante siglos refugio de caminantes y peregrinos, y conexión entre tierras del Ebro, el mar, el Reino de Navarra y Francia.

La presidenta de las Juntas, antes de entregar a la alcaldesa de Valle de Arana el certificado de autenticidad que acredita que el ejemplar plantado es descendiente del Árbol de Gernika, ha deseado que el retoño *“eche fuertes raíces y se mantenga firme a*



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



pesar de los duros inviernos. Que sea testigo también, como lo describáis en vuestra petición, de los juegos de los niños y niñas, de los amores de la juventud, de los días de romería, y del futuro que debemos construir entre todos y todas.”

El acto de plantación ha supuesto un acontecimiento especial para el municipio y sus cuatro concejos en los que está dividido Valle de Arana. El roble ha captado hoy la atención de numerosos representantes de la comunidad. Además de la Alcaldesa, la corporación municipal y las personas integrantes de la cofradía, el acto ha contado con la presencia de miembros de distintas asociaciones del municipio alavés, de alumnos y alumnas de la Ikastola Mendialdea, del Coro Aranako Abesbatza que ha interpretado el Txori-Txori y el Agur Jauna, así como de las Juntas Administrativas, y de vecinos y vecinas de la localidad. Asimismo, el acto ha contado con presencia de otras personalidades del Territorio Histórico como la senadora por Álava Estefanía Beltrán de Heredia, el diputado foral de Agricultura, Eduardo Aguinaco, o el presidente de la Fundación Vital, Jon Urresti, entre otros.

Junto al árbol se ha instalado una placa con la misma inscripción (en euskera, castellano e inglés) que suele acompañar desde hace años la plantación de cada retoño:

***“Retoño del Árbol de Gernika,
símbolo de las libertades vascas y
del anhelo de Paz del Pueblo Vasco.
Escenario, en 1937, del primer bombardeo
masivo contra población civil a nivel
mundial e inspiración de la obra
“Guernica”, de Pablo Picasso.”***